EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Pako Aristiren 'Euskal Kantagintza Berria' liburua berrargitaratu du Erein argitaletxeak

Pako Aristi, 2018an egindako elkarrizketa batean. / IDOIA GONZÁLEZ

Lehendabiziko edizioa 1985eko udaberrian plazaratu zuen idazle euskaldunak

UNAI SARRIUGARTE

Viernes, 22 mayo 2020, 20:50

Pako Aristi idazle euskaldunaren 'Euskal Kantagintza Berria' liburua berrargitaratu du Erein argitaletxeak, eta liburuaren hitzaurrea Jon Eskisabelek jorratu du. Lehendabiziko edizioa 1985eko udaberrian plazaratu zuen Aristik. Garai hartan 21 urteko Kazetaritzako ikaslea zen gipuzkoarra. Dena den, jada bazebilen erreportaje eta elkarrizketak egiten hedabide ezberdinetan.

Izan ere, horrela ezagutu zuen Bernardo Atxaga, eta hark eman zion 'Euskal kantagintza Berria' **izango zena idazteko proposamenetako bat**. Harrezkero, 35 urte luze igaro dira, eta, urteurrenaren harira, lana berrargitaratzea erabaki du argitaletxeak. Ostegunean, maiatzaren 21ean, aurkeztu zuten, bideokonferentzia bidez, egileak berak eta Iñaki Aldekoa editoreak.

Aldekoak Aristiren lana klasiko bat bezala definitu zuen. Izan ere, orduko euskal kantagintzak izan zuen arrakastaren eta oihartzunaren lehendabiziko bilduma jorratu zuen Aristik. Liburuaren egitura hiru elementuk osatzen dute: elkarrizketek, hemeroteka lanak eta fikziozko istorio batek. Azken horretarako bi alter-ego sortu zituen: berarena, narratzaile lanak egingo zituena, eta argitaletxeko Asentxio Ondartzabalena.

Liburuan 1961. urtetik 1985era arteko epea ikertu zuen Aristik, eta tarte horretako 22 **musikari eta talde aukeratu zituen elkarrizketetarako**, hala nola, Benito Lertxundi, Errobi, Gorka Knörr, Haizea, Hertzainak, Imanol, Itoiz, Izukaitz, Jotakie, Lourdes Iriondo, M-ak, Mikel Laboa, Mixel Labeguerie —ordurako hila zen, eta semea elkarrizketatu zuen—, Niko Etxart, Oskorri, Pantxoa eta Peio, Ruper Ordorika, Txomin Artola, Urko eta Xabier Lete.

Ordu luzez elkarrizketatu zituen artista ezberdinak eta modu tartekatuan antolatu zuen materiala testuan. Berrikusteko puntu bat genero ikuspegia litzatekeela aipatu zuen, Aristik. Emakumezkoen artean lau musikarien izena goraipatu nahi izan zuen: Lurdes Iriondo, Odile Kruzeta (Izukaitz), Amaia Zubiria eta Maite Idirin, merezi zuten lekua ez ziela eman nabarmendu baitzuen.

TEMAS Euskera, Euskal Literatura

Lo + leído

El Correo | Zurekin | Top 50

1 Agur Jerry!
2 Darya Klishina atleta: «Hilean 200 mila dolar eskaini zizkidaten prostituta izatearen truke»
3 Zure eskolan ateratako txikitako argazkiak al dituzu? Bidali itzazu Gerediaga Elkartera
4 Lamiakoko jaietako giroa, sarean burrunbaka
5 Zinemagintzan emakumeen presentzia sustatzeko programa

Comentarios

PATROCINADA

Fotos

Así vive Bizkaia el primer día de libre circulación por la provincia
El Alavés ya entrena en grupos
Los pensionistas alaveses homenajean a los fallecidos en las residencias por coronavirus
El Athletic inicia la fase de entrenamientos de grupos

Vídeos

Liher taldearen disko berria: Nola erreakzionatuko zenuke bortxaketa baten aurrean?